BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4974

EBAZPENA, 2026ko azaroaren 6koa, Ingurumeneko sailburuordearena, natura-ondarearen kontserbazioan ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten pertsonei, elkarteei, fundazioei eta enpresei 2026rako dirulaguntzak ematea ebazten duena.

Lehenengoa.– Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2026ko maiatzaren 5eko Aginduaren bidez (EHAA, 87. zk., 2026ko maiatzaren 12koa), natura-ondarea babesteari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten pertsona, elkarte, fundazio eta enpresentzako dirulaguntzak arautzeko oinarriak ezarri eta laguntza horiek emateko deialdia egin zen 2026. urterako.

Bigarrena.– Natura Ondarearen eta Klima Aldaketara Egokitzeko zuzendariaren 2026ko irailaren 16ko Ebazpenaren bidez (2026ko urriaren 6ko EHAA, 191. zk.) horretarako eratutako Balorazio Batzordea bildu da, hala xedatzen baitu Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2026ko maiatzaren 5eko Aginduak, zeinak natura-ondarea babesteari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten pertsona, elkarte, fundazio eta enpresentzako dirulaguntzak arautzeko oinarriak ezarri eta laguntza horiek emateko deialdia egiten baitu.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa.– Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2026ko maiatzaren 5eko Aginduaren eranskineko 16.1 oinarriaren arabera, aginduan jasotako dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez esleituko dira, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19. artikuluaren arabera.

Bigarrena.– Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2026ko maiatzaren 5eko Aginduaren eranskineko17.3 oinarriak ezartzen duenez, ebazpenak zehaztuko ditu, alde batetik, diruz lagundutako proiektuak, erakunde onuraduna, finantzatutako proiektua, lortutako puntuazioa eta emandako zenbatekoa adierazita, urteka banakatuta; ondoren, ordezkapenen zerrenda, izaera hori jasota eta balorazio-fasean lortutako puntuazioaren beheranzko hurrenkerari jarraituz ordenatuta, erakundea, proiektua eta gehieneko zenbatekoa adierazita; eskatutako laguntza eman ez zaien proiektuak, horretarako arrazoiak emanez; eta, onartu ez diren eskabideak, ez onartzeko arrazoiak adierazita.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2026ko maiatzaren 5eko Aginduaren eranskineko 17.1 oinarrian aurreikusitakoaren arabera, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzak, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena ikusita, ebazpen-proposamen arrazoitu bat egingo du, eta Ingurumeneko sailburuordeari bidaliko dio espediente osoarekin batera, ebazpena eman dezan.

Proposamen hori behin betikoa izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean xedatutakoaren arabera.

2026ko azaroaren 3an, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren zuzendariak ebazpen-proposamena egin zuen.

Hirugarrena.– Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2026ko maiatzaren 5eko Aginduaren eranskineko 17.1 oinarriaren arabera, Ingurumeneko sailburuordeak eskumena du onuradunak eta eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoak zehazteko.

Honako hauek ikusi dira: Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2026ko maiatzaren 5eko Agindua, natura-ondarea babesteari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten pertsona, elkarte, fundazio eta enpresentzako dirulaguntzak arautzeko oinarriak, eta laguntza horiek emateko deialdia egiten duena 2026. Urterako; lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena; abenduaren 3ko 410/2024 Dekretua, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta gainerako arau orokorrak.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean jasotako erakundeei dirulaguntza ematea, bertan zehazten diren proiektuetarako eta zenbatekoekin.

Bigarrena.– Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2026ko maiatzaren 5eko Aginduaren eranskineko 19. oinarrian xedatutakoaren arabera ordainduko dira dirulaguntzak.

Hirugarrena.– Eskatutako dirulaguntza ukatzea, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2026ko maiatzaren 5eko Aginduaren eranskineko 15.3 oinarrian ezarritakoaren arabera, ebazpen honen II. eranskinean adierazitako erakundeei, bertan zehazten diren arrazoiengatik.

Laugarrena.– Dirulaguntza ordaintzeko, onuradunak agiri bidez egiaztatu beharko du, bai eta sortutako dokumentazioa aurkeztu ere, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2026ko maiatzaren 5eko Aginduaren eranskineko 19.1 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Dirulaguntza Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2026ko maiatzaren 5eko Aginduaren eranskineko 19. oinarrian ezarritakoaren arabera ordainduko da, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren zuzendariak ebazpena eman ondoren.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, interesdunei jakinarazteko, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2026ko maiatzaren 5eko Aginduaren eranskineko 17.6 oinarriaren arabera.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Industria, Energia Trantsizio eta Jasangarritasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunetik hasita, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 6a.

Ingurumeneko sailburuordea,
JOSU BILBAO BEGOÑA.

I. ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Exp. zkia	Erakundea	LH	Proiektua	Punt.	Pertsonala (euro)	Inbertsioa (euro)	Gastu orokorrak (euro)	Kongresu gastuak (euro)	Hedapen gastuak (euro)	Beste gastuak (euro)	Aurrekontuak (euro)	Gehieneko dirulaguntza (euro)	1. ordainketa (euro)	2. ordainketa (euro)	Metatua (euro)
9	Ekolur Asesoria Ambiental SLL	Gipuzkoa	Kolakaren (Alosa alosa L.) eta lanprearen (Petromyzon marinus L.) banaketaren eta ugaritasunaren jarraipena eta eguneraketa EAEn 2026/27	110	14.500,00	1.600,00	500,00	-	-	4.500,00	21.100,00	16.880,00	6.492,31	10.387,69	16.880,00
11	Ekolur Asesoria Ambiental SLL	Gipuzkoa	Odonatuen (larbak) eta naiadeen prospekzioa Ihuda ibaia (Ayuda) eta Araxes ibaia KBEetan, eta Gipuzkoako ibai-odonatuen komunitatearen karakterizazioa.	106	13.500,00	2.300,00	600,00	600,00	50,00	1.250,00	18.300,00	13.899,00	5.345,77	8.553,23	30.779,00
3	Bioma Forestal, Schwendtner y Barnard SL	Araba	9580* lehentasunezko habitata lehengoratzeko eta kontserbatzeko diagnostikoa eta kudeaketa-jarraibideak Arabako Mendilerro Meridionáles KBEan (ES2110018)	103	8.935,80	2.978,60	446,79	-	595,72	1.936,09	14.893,00	11.914,40	4.582,46	7.331,94	42.693,40
5	Asociación Naturtzaindia Kontserbazio-Biologiaren Euskal Elkarte	Gipuzkoa	Aralarko Parke Naturaleko eta Kontserbazio Bereziko Eremuko kiropteroen azterketa (ES2120011)	99	10.300,00	3.300,00	618,00	-	-	6.405,00	20.623,00	16.498,40	6.345,54	10.152,86	59.191,80
2	Bioma Forestal, Schwendtner y Barnard SL	Araba	Izkiko Parke Naturalean mehatxupean dauden saguzar zuhaitzarrei buruzko ezagutza hobetzea (ES2110019)	91	8.650,00	660,00	495,36	-	600,00	5.950,00	16.385,36	13.108,28	5.041,65	8.066,63	72.300,08

Exp. zkia	Erakundea	LH	Proiektua	Punt.	Pertsonala (euro)	Inbertsioa (euro)	Gastu orokorrak (euro)	Kongresu gastuak (euro)	Hedapen gastuak (euro)	Beste gastuak (euro)	Aurrekontuak (euro)	Gehieneko dirulaguntza (euro)	1. ordainketa (euro)	2. ordainketa (euro)	Metatua (euro)
14	Azti	Gipuzkoa	ROK ALERT: Rugulopteryx okamurae-ren jarraipena eta detekzioa euskal kostaldean, monitorizazioa, herritarren zientzia eta eDNA tresnak integratuz	85	12.781,00	-	484,23	-	-	3.360,00	16.625,23	9.725,48	3.740,57	5.984,91	82.025,56
4	Aran Servicios Medioambientales, S.L.	Araba	Parke Naturaleko eta ES2110019 Izki KBEko mastofaunaren azterketa (kiropteroak barne)	74	34.007,15	3.808,36	153,39	-	-	2.147,00	40.115,90	25.000,00	9.615,38	15.384,62	107.025,56
1	Aran Servicios Medioambientales, S.L.	Araba	Oilagorraren populazio ugaltzailearen (Scolopax rusticola) jarraipena egitea Izkiko Naturagune Babestuan (ES2110019), monitorizazio akustikoaren eta GPS telemetriaren bidez	73	38.513,12	4.652,53	937,50	-	-	2.700,00	46.803,15	22.974,44	8.836,32	14.138,12	130.000,00

BALORAZIOEN TAULA

Exp. zkia	Erakundea	Lurraldea	Proiektua	16.2.A oinarria	16.2.B oinarria	16.2.C oinarria	16.2.D oinarria	16.2.E oinarria	16.3 oinarria	Guztira
9	Ekolur Asesoria Ambiental SLL	Gipuzkoa	Kolakaren (Alosa alosa L.) eta lanprearen (Petromyzon marinus L.) banaketaren eta ugaritasunaren jarraipena eta eguneraketa EAEn 2026/27	34	31	18	18	4	5	110
11	Ekolur Asesoria Ambiental SLL	Gipuzkoa	Odonatuen (larbak) eta naiadeen prospekzioa Ihuda ibaia (Ayuda) eta Araxes ibaia KBEetan, eta Gipuzkoako ibai-odonatuen komunitatearen karakterizazioa.	35	27	18	16	5	5	106
3	Bioma Forestal, Schwendtner y Barnard SL	Araba	9580* lehentasunezko habitata lehengoratzeko eta kontserbatzeko diagnostikoa eta kudeaketa-jarraibideak Arabako Mendilerro Meridionáles KBEan (ES2110018)	34	30	18	14	3	4	103
5	Asociación Naturtzaindia Kontserbazio-Biologiaren Euskal Elkarte	Gipuzkoa	Aralarko Parke Naturaleko eta Kontserbazio Bereziko Eremuko kiropteroen azterketa (ES2120011)	35	24	9	16	5	10	99
2	Bioma Forestal, Schwendtner y Barnard SL	Araba	Izkiko Parke Naturalean mehatxupean dauden saguzar zuhaiztarrei buruzko ezagutza hobetzea (ES2110019)	30	26	17	16	2	0	91
14	Azti	Gipuzkoa	ROK ALERT: Rugulopteryx okamurae-ren jarraipena eta detekzioa euskal kostaldean, monitorizazioa, herritarren zientzia eta eDNA tresnak integratuz	15	25	19	18	2	6	85
4	Aran Servicios Medioambientales, S.L.	Araba	Parke Naturaleko eta ES2110019 Izki KBEko mastofaunaren azterketa (kiropteroak barne)	21	26	10	13	3	1	74
1	Aran Servicios Medioambientales, S.L.	Araba	Oilagorraren populazio ugaltzailearen (Scolopax rusticola) jarraipena egitea Izkiko Naturagune Babestuan (ES2110019), monitorizazio akustikoaren eta GPS telemetriaren bidez	26	23	9	11	2	2	73
8	Ekos Estudios Ambientales S.L.U.	Gipuzkoa	Calotriton asper uhandre piriniotarraren (Dugès, 1852) populazioaren karakterizazioa eguneratzea haren banaketaren mendebaldeko mugan (Gipuzkoa)	28	19	10	4	0	5	66
7	Equinoccio Natura, S.C.	Araba/Bizkaia	Gorbeia KBEan basokoak ez diren mendi-hegaztien azterketa	23	22	10	9	1	0	65
6	Martin Arriolabengoa Zubizarreta	Gipuzkoa	Geosferak sistema karstikoetako klima-aldaketari ematen dion erantzuna	14	21	12	13	0	4	64

II. ERANSKINA

UKATUTAKO DIRULAGUNTZAK

Erakundea	Lurraldea	Proiektua	Arrazoia
Sociedad Española de Ornitologia SEO	Araba	Okil ertainaren populazioen jarraipena egitea Natura 2000 Sareko bi gunetan. Populazio-guneen egoerari buruzko ezagutza eguneratzea	2
Ekos Estudios Ambientales S.L.U.	Gipuzkoa	Calotriton asper uhandre piriniotarraren (Dugès, 1852) populazioaren karakterizazioa eguneratzea haren banaketaren mendebaldeko mugan (Gipuzkoa)	1
Equinoccio Natura, S.C.	Araba/Bizkaia	Gorbeia KBEan basokoak ez diren mendi-hegaztiak aztertzea	1
Martin Arriolabengoa Zubizarreta	Gipuzkoa	Geosferak sistema karstikoetako klima-aldaketari ematen dion erantzuna	1

Hauek izan dira baztertzeko arrazoiak:

1	Aurrekontu-zuzkidura agortu izana.
2	2026ko maiatzaren 5eko Aginduaren eranskineko 12.d oinarria ez betetzea, ez baitu egiaztatu Natura 2000 Sareko espazioen barruan proiektuko jarduerak garatzeko agintaritza eskudunak emandako baimena.